

B

BARREN

TOKIKOM



Elkartasuna Bateragune auzikoei

Garbiñe estetika, 25 urte zurekin

Abenduaren 12an 25.urtemuga ospatuko dugu herritarren zerbitzura. Hau guztia ez zatekeen posible izango zuen guztion laguntzarik gabe. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuet, eta bide batez, gure lorpenak zuenak ere badirela esan nahi dizuet. Horretarako, hilabete hauetan hainbat sorpresa eta opari banatuko ditugu eta %12a arteko deskontuak egingo ditugu hemendik urte bukaerara arte eskainiko ditugun zerbitzuetan. Jai batekin bukatuko ditugu ospakizunak. Abenduaren 12an izango da, eta gonbidatuta zaude.

► 25 urte dira denda zabaldu zenuenetik. Mantentzen duzu bezerorik ordutik?

Bai, orduan bezero zirenetako askok jarraitzen dute kabinetera etortzen eta horietako askorekin, gainera, oso harreman estua egin dut. Elkarrenganako konfidatza handia lortu dugu. Niretzako hori oso garrantzitsua da, modu horretan bezero bakoitzak duen arazo estetiko edo fisikoa lasai kontatzen didalako eta horrela tratamendu pertsonalizatuak eskaini ahal dizkiedalako.

► Zein motatako bezeroak dituzu?

Lehenengo urteetan nire bezero gehienak emakumezkoak ziren, baina gizonezkoak ere hasi dira etortzen, eta geroz eta gehiago dira, gainera. Nik uste dut gizonezkoen mentalitatea aldatu egin dela zentzu horretan, lehen ez zutelako euren gorputza zaindu behar zutenik sentitzen, eta orain, beriz, horren beharra sentitzen dutelako.

► Zein izan da zuk erabili duzun tratamendu izarra?

Nire tratamendu izarra azala garbitzeko eta aurpegiarako tratamenduak izan dira. Horixe da nire espezialitatea, horietan egin dut lan gehien, baina baita ere depilazio elektrikoan.

► Zeintzuk dira dendan eskaintzen dituzun tratamendu berrienak?

Radiofrekuentzia-tratamendua, mesoterapia birtuala, lifting kosmetikoa, kosmetika bidezko aurpegi eta gorputzaren exfoliazioa, oxigenazioa, aldi luze baterako manikura eta pedikura, betile-luzatzea...



Garbiñe estetika 25 urte!

25
urte
1989
2014

AURPEGIKO TRATAMENDUAK

Aurpegiko azala garbitzea
Katecobitala
Hidratazioa
Erregenerazioa
Lifting-a
Zimurren aurkakoa
Makillajea
Betile eta bekainak tidatzea

GORPUTZEKO TRATAMENDUAK

Zellitisaren aurkakoa
Tintotzalea
Erditze-ostekoa
Algak eta buztina
Manikura eta pedikura

DEPILAZIOAK

Argizari berceaz
Argizari epelaz
Elektrikoa

SOLARIUM-A

Har ezazu aurrez ordua

%12^a
arteko deskontuak
egingo ditugu
hemendik urte
bukaerara arte
eskainiko ditugun
zerbitzuetan.

**Baita hemendik urte
bukaerara arte
erosten dituzuen
OPARI
TXARTELETAN
ere.**



Miren
Vives

Aupa, Esti!
Kurtso berriari
neurria hartzen ari
garen honetan,
gaiak ez errepikatzea-
rren-edo, errepaso bat
egin diot orain arte hitz eginda-
koei. Mintzatu gara feminismoaz, koo-
peratibetaz, Ukrainiaz edo eta oporretaz. Eta zeraz ohartu naiz:
oraindik ez dugu gure gizartean eragin izugarria duen gai bati bu-
ruz berba egin, futbolaz alegia.

Baina nola hitz egin futbolaz bost axola zaizunean? Futbola-
ri zein ikuspuntutatik hel diezaiokegu? Alde batetik, inoiz jolastea
tokatu zaigun talde kirol bat den heinean, honek dakartzkien onu-
rak aipa ditzakegu. Edo eta gizartean talde baten parte sentitze-
ak sortzen duen kohesio sentsazio positiboaz.

“Futbol jokalaria modelo bihurtu dira, zelaian eta zelaitik kanpo”

Baina zer diozu hain onak ez diren beste eraginei buruz? Gi-
zartea izugarriko murrizketen ondorioak jasaten ari den bitarte-
an futbolak mugitzen duen diru-kantitate eskerga lizuna iruditzen
zait. Bai, badakit argudio demagogiko samarra dirudiela honek,
baina erromatarren garaiko *pan y circo* irudia datorrik burura, gi-
zartez kanpo bizi diren *gladiadoreak* goraiatuz bere eskubideak
ahazten dituen gizartearena. Ez baititugu soilik beraien joko poli-
ta eta golengatik miresten. Ez. Modelo bihurtu dira, publizitatea-
ren euskarri hutsak, zelaian eta zelaitik kanpo. Berdin zaigu zer
pentsatu edo esateko gai diren, gure seme-alaben eredu bihurtu
dira. Eta emakumeak objektu bihurtzen dituen gizarteak be-
rak, gizonezkoak ere objektu bihurtu dituela iruditzen zait, egoe-
ra konpondu beharrean, normalizatuz. Eta honek ez garamatza
bide onetik.

Baina aizu, ez al genuen futbolaz hitz egin behar?



Esti
Gonzalez

Batzuetan jabetzen ez bagara ere, futbo-
lak eragin itzela du gure bizitzetan, nahiz eta,
niri ere, bost axola zaidan kirol hori, Miren. In-
guruan harridura aurpegiz begiratzen didate
“gaur ere partida dago ala? Eta zeinek joka-
tzen du ba gaur?” galdetzen dudanean. Ezinez-
koa dirudi partida garrantzitsu hori dagoela ez jaki-
tea. Lankideak lagunekin geratu dira iluntzean elkarrekin
partida ikusteko, bufanda eta guzti. ‘Partida? Tira, Esti, Txapeldunen Liga-
koa. Ez dakizula, ala?’ da jasotzen dudana erantzuna.

Niri egia esan berdin zait, baina telebista kanala aldatzea erreza da. Zai-
lagoa da gizartean izan dezakeen eragin negatiboaz libratzea. Miren, talde
baten parte sentitzeak sortzen duen kohesio sentsazioa positiboaz hitz egin
duzu zure testuan. Baina bi ahoko ezpata da hori. Kasu batzuetan eragin
banatzailea ere izan dezake, eta muturrera eramanez gero, baztertzaila ere
bai. Gure gizartea oraindik ez dago futbola gustatzen ez zaion ume kokkor
bati bizimodua errazteko prestatuta. Eta are gehiago, ume kokkor hori mu-
tila bada. Taldetik kanpo sentituko da kasu gehienetan, horrek dakarren on-
dorio kaltegarri guztiakin.

“Gure gizartea oraindik ez dago futbola gustatzen ez zaion ume bati bizimodua errazteko prestatuta”

Eta zer esanik ez futbolak okupatzen duen espazio-denbora binomio-
az. Egunero ikastolako patiorik handiena futboleko jokatzeko izaten da, eta
beste guztiok elkarren gainean eta izkinatxo batean moldatu behar izaten
gara. Zorionez, arazo honi ere konponbide bat emateko asmotan ordu-
giak jartzen ari dira ikastetxe askotan. Ezin da egunero futboleko jokatu, fut-
bolaren eragin monopolizatzaile hori leuntzeko asmoarekin.

Ikusten duzunez, badirudi, tamalez, gizarte honetan oraindik “pelotek”
presentzia gehiegi dutela.



elgoiBARREN.net

3.000 bisita astean!

Animatu eta jarri zure negozioaren iragarkia

Eska ezazu aurrekontua

943 744 112 telefonora deituz

edo barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Majalen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Topagunea

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Zabor edukiontzia birziklatzera!

Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkar-teak *Zabor edukiontzia birziklatzera* izeneko kanpainari hasiera eman dio Donostian. Mugimenduak zabor edukiontzia gerra aldarrikatu dio, gerra ideologikoa, absurdoaren museoan leku pribilegiatua duen asmakizun horren miseriak agerian jarri asmoz.

Zero Zabor mugimenduak agintarien bete-beharretaz hitzegiteko garaia dela adierazi du: "Agintariak, gizon-emakumeon eskubideak bermatzeko betebeharra daukate. Agintariak ezin dute diru publikoa zaborra sortzeko bitartekoetan xahutu, guztion dirua guztion kalterako erabili. Hainbat agintariek, tamalez, gizon-emakumeok ingurune osasungarri batean bizitzeko dugun eskubidea urratzen jarraitzen dute. Hortaz, zabor edukiontzia hor egoteari utzi behar diote".

Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkar-teak oraindik beraien kaleetan zabor edukiontzia duten udal ordezkariak (Elgoibar eta Mendaro tartean), besoak gurutzaturik gera ez daitezten eskatzen die. Donostian irudikatu duten zabor edukiontzien zigilatzea Gipuzkoako eta Euskal Herriko hainbat herritara zabaltzeko asmoa dute. Zabor edukiontzia zigilatzea eta kaleetatik ezabatzea agintarien ardura eta betebeharra dela gogorarazi dute.

Goazen ba pixkanaka zabor edukiontzia birziklatzera eramatera!

A.Z. ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Maalako parkean ez dago zakarrontzirik:

“Maalako parkean ez dago zakarrontzi bat bera ere. Ume eta guraso asko biltzen dira parkean egunero, eta ez dugu ulertzen nola ez dituzten inguru horretan zakarrontziak jartzten. Umeak egoten diren inguruan zabor asko sortzen da, eta inguru guztia zikinkeriaz beteta geratzen da. Zakarrontziak beharrezkoak dira ingurune horretan”.



Lekuederreko jarleku bat hondatuta dago: “Lekueder parkeko jarleku bat hondatuta eta egoera arriskutsuan dago. Jende asko ibiltzen da ingurune horretan umeekin, eta herritar askok erabiltzen dituzte jarleku horiek, beraz, lehenbailehen konpontzea eskertuko genuke”. Hirigintza Saitetik erantzun dute konponduko dutela, baina horrelako kexak Herritarren Arretarako Bulegoan jakinarazi behar direla, honelako lanak eginbeharrekoetan jasotzen dituzten.



Udalak ez al du Ubitarte inguruko OTA-TAO sistema berraztertze asmorik?

“Ubitarte inguruan OTA-TAO sistema jarri zutenetik aparkaleku guztia libre egoten da egun osoan, baina bertan bizi garenok ezin dugu erabili. Orain dela hilabete batzuk atal honetan adierazi genuen gure kexa, eta Hirigintza arduradunak esan zuten OTA-TAO sistemak ez bazuen funtzionatzen aztertuko zutela berriro, baina noiz?”. Udaleko Hirigintza Sailarekin harremanetan jarri gara, eta handik esan digutenaren arabera, oraindik ez dituzte ikerketaren datuak aztertu, baina ingurune horretako OTA-TAO sistemak ondo funtzionatzen duen ustea dute.



Karakateko eta Atxolingo iturriak konpontzeko bigarren lan-saioa egingo dute bihar

Morkaikoren ekimenez, auzolanean burutuko dituzte lanak

Atxolingo eta Karakateko iturriak auzolanean konpontzeko deia egin du Morkaiko mendizale elkarteak. Joan den zapatuan egin zuten lehenengo lan-saioa, eta hamasei bat lagunek jardun zuten lanean. Inguru garbitu, hoditeria berria sartu, aska berria egin... eta antzerako lanetan jardun zuten. Morkaiko Mendizale Elkarteak interes berezia duten mendi inguruak auzolanean berreskuratzeko egitasmoaren barruan dihardute iturriak eta inguruak konpontzeko lanetan. Joan zen astean hasitako lan horiek bukatzeko eta Upaigoititik Atxolinera arteko bidea txukuntzeko bigarren lan saioa antolatu du Morkaikok biharko. Interesatuak 8:00etan agertu beharko dute IMHko tenis pistaren ondoan. Informazio gehiagorako deitu honako telefono zenbakira 636 994 798 (Aitzol).



IMHko kirol-instalazio berria egiteko obrak martxan daude

IMHko ikastetxearen eta Makina Erremintaren Museorearen artean kirol anitzerako kantxa berria eraikitzeko lanak hasi ditu Udalak. 20x40 metroko kantxa egingo dute, eta besteak beste, eskubaloian edota areto futboleant jokatzeko erabiliko da. Kantxa azpian eraikiko dituzte aldagelak, biltegiak eta komunak. Goiko solairuan, berriz, harmailak egingo dituzte eta 288 lagunentzako lekua egongo da. Olaizaga kiroldegiko kantxa beteta egoten da asteko ordu gehienetan, eta horregatik erabaki zuen Udalak beste kantxa bat egitea. IMHko kirol-instalazioak 946.930,58 euroko aurrekontua izango du, eta sei bat hilabeteko epean amaituko dute.



Maalako parkea estaltzeko lanak hasi dira



Maalako parkea estaltzeko lanak hasi dituzte, eta gauzak ondo bidean, Eguberrietarako amaituko dituzte obrak. Maalako parkea estaltzeko proiektua aukeratzeko ideia lehiaketa antolatu zuen Elgoibarko Udalak, eta losu Gabilondo arkitekto elgoibartarrak aurkeztutako *Hegoak ebaki banizkio* izeneko aurre-proiektuak irabazi zuen. Zortzi lan aurkeztu zituzten lehiaketara, eta epaimahaiak esandakoaren arabera, lana izan zuten irabazlea aukeratzeko. Ingurura nola egokitzen den, egitura mantentzeak zer kostu izango duen gerora begira, gaur egun parkeari ematen zaizkion erailetara nola egokitzen den, prezioa eta argitasuna izan zituzten kontuan, besteak beste, eta horiei erreparatuta aukeratu zuten losu Gabilondoren proiektua. 244.789 (+BEZ) euroko inbertsioa egin beharko du Udalak.

Izena **Jose Mari Ondartza**



Jose Mari Ondartza abenturazale elgoibartarrak *Rio Gorabera* liburua kalera-tu berri du: Barren barrenetik idatzitako liburua dela adierazi du, bere bizipen eta abenturak jaso ditu, umorez eta idazkera estilo bizian. Burura etortzen zitzaizkion ideiak ekarri ditu paperera, eta aurreratu du, irakurlea ez dela aspertuko.

Irudia **Stock feria**

Jendetza batu zuen joan zen zapatuko Stock feria. Txankakua merkatari elkarteak antolatuta, kalera irten ziren dendariak, eta herritarrek ez zuten hutsik egin. Era guztieta-ko merkatariak hartu zuten parte, eta mota guztieta-ko produktuak erosteko aukera izan zen, gehienak deskontuekin. Horrez gainera, feriara gerturatu ziren herritarrek Txankakua-ko zozketan parte hartzeko aukera izan zuten. 600 euro zozketatu zituzten erosketarekin, eta sei lagunek jaso zuten saria: ehun euroko erosketa txeke bana.



San Antolin jaietako zozketaren irabazleak agertu dira

San Antolin jaietako errifaren zozketako saridunak agertu dira: Paki Oteizari tokatu zaio Kanariar Uhartetarako bi lagunentzako bidaia eta Iñaki Ansolari janariz eta edariz beteriko karretila.



San Migel jaietako txekorra zozketatu dute

Aiastiako San Migel jaien barruan txekorra zozketatu zuten. 9.546 zenbakia izan da sariduna. Mutrikuko Oihane Gartzia izan da irabazlea.



Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko bisita gidatua

Joan zen asteko bisita gidatuak arrakasta handia izan duela adierazi dute antolatzaileek, eta hori dela-eta, bihar beste ibilaldi gidatu bat egingo dute, gaztelaniaz. Domekarako, berriaz, euskarazko saioa antolatu dute. 10:00etan batuko dira Karakateko aparkalekuan, eta oinez egingo dute Irukurutzera arteko bidea. Bisita doakoa da, baina izena eman behar da: 695 783 656 / 943 779 128.

Goratuk gezurtatu egin du Iranera saldu dutela

Legeria “zorrotz” betetzen dutela esan du, eta auzi hau “berehala” amaituko den ustea agertu

Goratu S.A. enpresak gezurtatu egin du Iranera makinak saldu dituela. Prentsa ohar bat kaleratu du enpresak, eta oharrean dio ekoizpenaren %90 kanpora esportatzen duten arren, sekula ez dutela Iranekin harreman komertzialik izan. Era berean dio ekoizten dituzten makinak, orokorrean, ez direla erabilera bikoitzeko makinatzat hartutakoak. Nolanahi ere, gaineratu dute indarrean dagoen legeria zorrotz betetzeko “ardura handiz” aztertzen dituztela eskari guztiak enpresan, eta horretarako, herrialde, talde edo bezero bakoitzak behar dituen baimen-kontu guztiak betetzen dituztela. Horrezaz gain, eta nazioarteko politikan izan diren eta gertatzen ari diren aldaketa guztiak aintzat hartuta, Goratutik esan dute ekoizten dituzten material guztien gaineko ikerketa independente bat eskatua dutela, babes neurri gisa. Horregatik, auzi hau “berehala eta modu positiboan” itxiko dela sinistuta claude zuzendaritzakoak, prentsa oharrean diotenez.

Goratuk tornu horizontalak ekoizti eta saltzen ditu, Geminis markapean, eta baita fresatzaile sorta handi bat ere Lagun markarekin. “Ballo erantsi handiko” aplikazioak dira saltzen dituztenak, besteak beste energia sortzeko sektoreetan, siderurgian, eta trenak egiteko sektorean erabiltzekoak. Enpresak berak 50 urteko ibilbidea du, AFMko bazkide da, lau fabrika ditu Euskal Herrian eta Espainian, eta saltoki puntu ezberdinak Alemanian, Erresuma Batuan, Italian, Errusian, Indian eta Txinan, besteak beste.

Polizia operazioa

Madrilgo epaile baten aginduz Guardia Zibilaren polizia operazioa izan zuten joan zen martitzenean Goratun eta zuzendaritzako hiru la-



gun deklaratzera deitu zituzten bihamunerako, inputatuta. Orduetik enpresatik ez dute adierazpenik egin eta ezta AFM Makina-erreminta ekoizleen elkartetik ere. Era honetako polizia operazioak ez direla guztiz ezohikoak adierazi zioten AFMko iturriek aldizkari honi joan zen astean, eta erabilera bikoitzeko materialen gairako arduradun bat izan arren, elkarteak ez duela gai honen inguruko adierazpenik egiten gehitu dute asteon, BARRENEK euskal enpresariet atzerriko zenbait herrialde-tara esportatzeko dituzten zailtasunez eta esportatzeko baldintzez galdetu dienean.

Gaiaren galdean, Adeggi Gipuzkoako enpresarien elkartera jo du agerkari honek eta ICEX Espainiako Ekonomia Ministerioaren menpeko Esportazio eta Inbertsionarako enpresa-erakundera zuzendu du hark. Han, Merkataritzarako Estatu Idazkaritzako iturriek ez dute kasu zehatz honen inguruko azalpenik eman nahi izan eta araudia ematera mugatu dira: <http://www.mineco.gob.es/stfls/mineco/prensa/ficheros/noticias/2014/INFORMEESTADISTICAS2013.pdf>.



Erretratu zaharra**1958**

Aste honetako erretratu zaharra 1958. urte ingurukoa da. Elgoibarko jaietan aterata dago, Trinitate edo San Bartolome jaietan. Garai hartan oso ohikoak ziren argazkilariak jaietan. Kanpotik etortzen ziren dekorazio eta mozorroekin, eta herritarrek argazkiak ateratzen zituzten. Hirukote honek ere halaxe egin zuen. Bakeroz jantzita, kapelak eta pistolak soinean dituztela atera zuten erretratua. Kultur Etxe inguruan aterata.

Ezkerretik eskumara: Sebastian Etxaniz, Jose Mari Ondarza eta Juan Jose Ondarza (†).



**MILAR
BIRE**

Ubitarte 11
943 741 487
bire@milar.es

Plan Renove 2014

Etxetresnak

125 europa arteko deskontua

ZAIRA ZANGUITU

ZUZENDARI LAGUNTZAILEA

Zinemaldian estreinatu berri diren ‘Lasa eta Zabala’ eta ‘Negociador’ filmeetan aritu da lanean Zaira Zanguitu. Pablo Maloren zuzendaritzapean eginiko filma sail ofizialean ikusi dugu, lehiaketatik kanpo; Borja Cobeagarena, aldiz, Zabaltegin. 62.edizioan euskal zinea nabarmendu da. Zuzendaritza taldearen, ekipo teknikoaren parte da Zaira eta bere lanagatik harreman estua du zuzendari eta aktoreekin, Unax Ugalde edo Ramon Barearekin, esaterako. Beste pelikula baten errodajeari ekiteko prest dago orain Madrilen, Maribel Verdu protagonistatzat duen proiektu batean.

Leire Urkidi



Zaira Zanguitu eskuman, Lasa eta Zabalaren hilketaren eszena entsegatzen.

“Torturak filmatzea oso desatsegina izan da”

‘Lasa eta Zabala’ filma Sail ofizialean ikusi dugu, baina lehiaketatik kanpo. Lehian aritu izana gustatuko litzaizuke?

Bai, zergatik ez? 21 film izan dira aurtien sail ofizialean, denetariko gaiak aukeratu dira, berez gai politiko batek urrezko maskorra amestu dezakeela iruditzen zait. Hala ere, Zinemiran egon zitekeen, euskal zinearen

sailean, eta azkenean, sail ofizialean izan da; hori pozgarria da.

Nolakoa izan da Pablo Malorekin lan egi-tea?

Oso gustura aritu nintzen berarekin lanean. Pablo hasieratik guztiz konprometitua ikusi nuen proiektuarekin. Aurretik egin dituen luzemetraiak bereak ziren, eta hau enkargu

bat izan zen, baina hasiera-hasieratik senideekin bildu zen, Paco Etxeberriarekin, Iñigo Iruinekin... istorioa ondo josten saiatu zen, berea egin zuen filma lehen unetik. Gidoia ere barneratu zuen, elkarrizketak lantzen artista bat dela azpimarratuko nuke.

Protagonistak aktore ezezagunak direla esan dezakegu.

Bai, hala da, eta hor ere Pablo Malok egin duen lana bikaina izan da. Aktore guztiak ondo gidatzen ditu, baina orain arte esperientzia asko ez duten bi aktore gazterekin lan izugarria egin du. Torturak grabatzeak bere zaitasuna izan du, eta hor egin duen lanaren emaitza ikusten da.

Nolakoa izan da errodajea gaia kontuan hartuta?

Iluna, gogorra gai aldetik, baina errodajea bizia eta interesgarria izan da. Ekipo guztiak errespetu handiz lan egin du film honetan. Torturak filmatzea, adibidez oso desatsegina izan zen. Badakigu fikzioa dela, baina ezin genuen ahaztu istorio erreal bat dagoela atzean, hori gertatu zela eta oraindik ere mingarriagoa izan zela, giroan sumatzen zen, ekioparen aurpegietara begiratu besterik ez zegoen. Nik ez dakit aktoreek nola lortzen zuten lo egitea eszena horiek errodatu ondoren, niri behin baino gehiagotan kosta zitzaidan lo hartzea lanetik irtenda.

Guardia zibil baten papera egiten duen aktore batek errodutzen ari ginela hase-rreru eta esan zuen: "Ez dakit nola egin zitzaizkete astakeria hauek, antzetzten ere ezin dut hain kabroia izan".

Lasa eta Zabalaren senideek gertutik jarraitu dute proiektua.

Joxean Lasaren ilobak Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi du, eta bere lehenengo lana film honetan egin du, primeran gainera. Bera gaztea da eta ez zuen bizi izan, osabarekin gertatutakoa oso present badu ere, eta errodajeak ukitu zuen. Horrez gain, senideak errodajera maiz etortzen ziren; taldekideak bihurtu direla esan daiteke. Niri ausarta iruditu zait hori guztia berriz "bizitzeko" erakutsi duten jarrera.

Zer iruditu zaizu azken emaitza, filma?

Inoiz ez zait gertatu nik lan egindako proiektu batean, "Lasa eta Zabalarekin" gertatu zaidana. Hasieratik pelikulan sartu nintzen eta tentsioan izan nintzen amaierara arte. Pelikulak ez dizu ihes egiten uzten, indar handia du!

'NEGOCIADOR' FILMA

Nolakoa izan da Borja Cobeagarekin lan egitea '8 apellidos vascos' filmak izan duen arrakastaren ondoren?

Gustatzen zaiona egiten jarraitzen du, jendeak barre egitea da bere helburua. Ez dut gehiegi sumatu '8 apellidos vascos' filmaren arrakastaren eragina. Oso langilea da, eta gustura ikusi dut bera zuzendari lanean. Gidoiak idazteaz gain, zuzentzea ere gustatzen baitzaio.

Zergatik gorde du hain sekretuan film hau?

Bere berri emateko denborarik ere izan ez delako ia-ia. Bi astean grabatutako pelikula da. Oro har, datu honekin izututa gaude, baita ni ere, nahiz eta bertan lanean izan filmak bi astean errodatzera pasatzen bagara ez dakit zertaz bizi behar dugun zine munduan gabiltzanok! Bestalde, pozgarria da, dirurik ez badago eta istorioak kontatzen jarraitu nahi badugu, modua bada goela erakusten duelako, baina ez da bide egokia.

Cobeagak ohituta gauzkan filmeetatik aldentzen al da 'Negociador'?

Jesus Eigurenek bake prozesuan izandako paperetik tiraka eraiki omen du.

Ez, Cobeagak umorearekin lan egiten du, eta kasu honetan ere berdina egin du. Bere betiko bideari eutsi dio beste behin! Nik uste umorea lantzen maisua dela.

Orain arte besteen filmetan lan egin duzu, baita zinemaldietan ere, baina bestelako proiekturik baduzu zinean?

Gustura aritzen naiz lan hauetan. Beti ikasten da, baina bai, noski, film bat zuzentzea dut amets. Dena dela, errealistak izanik Cobeagak zailtasunak izan baditu bere luzemetraia zuzentzeko, zer egin behar dut nik? Bidea ez da erraza, baina ilusiorik ez zait falta. Lanean ari naiz, proiektu interesgarri bat dut esku artean, baina oraindik beharrezko aurrekontua lortzen nabil.

"Film bat zuzentzea dut amets"



Zaira Zanguitu, Pablo Malo zuzendariarekin.

Manifestaziorako deia



Babes handia jaso du Arnaldo askatu, politika askatu herri-ekimenak biharko antolatu duen manifestazioak. Argazkian, EAJ eta EHBilduko udal ordezkari zenbait eta herriko kultura eta gizarte arloko hainbat lagun martitzenean biharko manifestaziora deitzeko egindako argazkian.

Arnaldo askatu, politika askatu herri-ekimenak manifestaziora deitu du biharko (17:00), Bateragune auzian auzipetu eta kartzelatutako bost lagunak aske lagatzeko exijitzeko, eta deialdiak kultura, gizarte eta politika arloko dozenaka lagun babesa jaso du, bai Elgoibarren eta baita Elgoibartik kanpora ere. Bateragune auzian preso dituzten Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez, Rafa Diez, Miren Zabaleta eta Arnaldo Otegi "Euskal Herriak bizi duen itxaropen eta ilusio egoeraren erantzule" direla aldarrikatu dute plataformakoek eta biharko manifestazioan parte hartzera deitu dituzte herritarrak. Era berean, manifestazioan antolakuntza-lanetan parte hartuko duten boluntarioei 15:00etarako plazara agertzeko eskatu diete. Biharkoaren harira, Patxi Zabaleta Aralar-eko ordezkariarekin eta Bateragune auzian kartzelatutako Miren Zabaletaren aitarekin (Leitza, 1947) izan da BARREN.

Ainara Argoitia



PATXI ZABALETA

ARALAR-EKO ORDEZKARIA

Bost urte beteko dira laster *Bateragune auzi-koak* kartzelatu zituztela, tartean zuen alaba Miren. Euskal Herrian babes handia jaso duen auzia da, baina nola bizi du aita batek egoera hau? Nola bizi du ia bost urteko hutsunea?

Zailtasun handiz, eta auziaren inguruko edozein zertzelada iristen zaigunean guraso edo senide guztioi gertatzen zaigun moduan, samintasun handiz. Esate baterako, joan zen astean, lehendabiziko aldiz bost urtean, Mire-

ni *petatea* eraman behar zuenak huts egin zuen. Arropak, liburuak eta aldizkari batzuk besterik ez ziren jaso behar zituenak, baina zaku hori oso garrantzitsua da preso dagoenarentzat, azken batean hori delako kanpoarekin, etxekoekin eta lagunekin, daukan loturetakoa bat. Eta halakoak izugarri mingarri gertatzen dira. Aurki beteko dira, gainera, bost urte preso hartu zituztela. Kartzelatu eta hogeitau egunera izan zuen bere 28. urtebetetzea Mirenek, eta hogeita bost egun barru beteko

“Espainian preso politikoak egon badauden froga ukaezina dira Bateragunekoak”

ditu 33 urte. Beraz, bere bizitzako 28, 29, 30, 31, eta 32. urteak kartzelan eman ditu, eta urte horiek kartzelan bete izanak izugarrizko ezinegon ere sortzen digu, ikusten dugulako gaztaroko sasoi politenetakoa barruan bizi duela alabak. Berak beti esaten du ez duela gorrotorik sentitzen eta irten ere halaxe irten go delo gorrotorik eta inolako mendeku egarririk gabe, baina hala ere, momentu askotan guri oso gogorra egiten zaigu. Hori bai, aurki *Preso politikoak eta amnistia* izenburupean argitaratuko dudan artikuluan gogoraziko dut bazela Nafarroan Jazinto Otxoa Martinikorena izeneko bat, sortzez Uxuekoa eta Francoren garaian 28 urte eta erdian preso izan zutena, zeinak esaten zuen: “Amnistia da nik herriari eta heritarrei barkatzea”. Amnistiaren aldeko kanpaina egiten herriz herri ibili ginenean sarri entzun nion hori, eta orain, askotan etortzen zait burura Mirenek esaten didanean soilik adiskidetasuna eta bakea bultzatzeko gogoz irten go delo, inolako gorrotorik eta esparik gabe.

Valladoliden dute preso zuen alaba. Zer moduz dago?

Oso bizkor dago, sendo bere lanean. Abokatu da, eta orain filosofia ikasten badihardu ere, kartzelan dituzten emakume presoek laguntzea da orain bere arduraren nagusia. Ez dauka beste preso politikorik alboan joan den otsailaz geroztik eta orain emakume preso arrunt edo sozialekin dago. Gogorra da berarentzat inorekin konfidentzia askorik egin ezina, azken batean beste egoera batzutatik datozen presoak dituelako ondoan orain, askotan premia handiak dituzten presoak. Emakume bizkorra da Miren, ausarta, ahaltsua eta buru-argia. Heldutasun handia eta bihotz-zabaltasun ikaragarri sakona nabari dizkiot orain, gainera, ikusten dudalako egunerari ari dela zuzendaritzakoekin borrokan, emakume horiei dagozkien baimen eta eskubideak aitortu eta eman diezazkioten. Horrek guztiak heldutasun handia eman dio.

Gehiengo handi batek salatu du auziaren oinarria guztiz politikoa dela, ez duela inolako oinarri judicialik. Eusko Legebiltzarrak, bestetik, Espainian preso politikorik ez zela eraba-

ki zuen joan zen urtean, PPK aurkeztutako legez besteko proposamen baten ondotik preso politikoak esapideari buruzko eztabaidan. Zaila da ulertzen.

Preso politikoen adibide peto-petoak dira hauek. Izan daitezke Bateragunekoak bezain preso politiko diren presoak munduan, baina gehiago direnik ez. Preso politikoak dira, eta demokrazia batean ez dira preso politikoak kabitzen. Horregatik ukatzen diete preso politikoak direla ahoz, baina gero, preso politikoei ematen dieten tratua ematen diete, Miren eta *Bateragune* auziko gainerakoak, tartean Arnaldo Otegi bera, sakabanatuta dituztelako. Beraz, bere ekintzekin preso politikoa direla aitortzen duen lehenengoa Estatu da, gero hitzekin izate hori ukatzen badie ere. Horregatik, beste askorekin batera, gazteekin eta abar, Espainian preso politikoak egon badauden frogak ukaezina dira Bateragunekoak. Eta preso politikoei amnistia dagokie, demokraziak ezin baitu osoa edo benetakoa izan, preso politikoak dauden bitartean.

Bateraguneko auzipetuak “ETAk aukeratu eta zuzendutakoak” zirela zioen epaileak. Zu ezker abertzaleko gizona izan zara beti, baina beti defendatu duzu ETA arrazoi politikoen inguruetan sortu zela eta arrazoi politikoen inguruetan desagertu behar zela. Nola daramazu alaba akusazio horren pean kartzelatu izana?

Samintasun ezin jasanarekin. Iruditzen zait gauza injusturik baldin bada munduan, hau dela: bakearen alde saiatu diren pertsonak preso izatea, terrorismoaz akusatuta. Baina horri erantzen diodan bigarren kontua zera da: batzuetan iruditzen zaidala erruaren zati bat niri dagokidala, ni hor ibili naizelako eta sentitzen dudalako nire ibileraren mendekutzat dutela beste bat preso. Eta hori da ezin jasanez nabilena.

Lizarraraziko porrotaren ostean sortu zenuten Aralar, eta kritika ugari jaso zenituzten hasiera hartan, besteak beste ETaren jarduna gaitzesteagatik. Orain, horra etorrita daukade denak. Nola bizi duzu hori?

Gauza bat zehaztu nahi nizuke horren harira: eztabaida horrek 70eko azkeneko urteetan eta 80ko lehenabaziko urteetan duela bere

izatea, Herri Batasuna sortu genuen garaian. Orduan ere baziren edo baginen politika soilik bide politikoen egiteak merezi zuela geroenak. Bi arima horiek beti izan dira lehian ezker abertzalearen baitan, beraz hori ez da Aralarren asmakizun bat. Bazegoen hori lehendik ere, eta bazeuden horrela pentsatzen zuten pertsonak beste sektorea esaten zioten hartan ere. Beraz, ikusita orain neurri handi batean guztiok urrats hori eman dugula, poza besterik ezin dut sentitu. Poza ikaragarria da, uste dudalako zailtasunak zailtasun oraindik ere baditugulako ezberdintasunak, txikiagoak izanda ere orain dugula ekintza politikoa bide osoa utzi behar zaiola, zuzentasun osoz eta eraginkortasun osoz jokatuta ahal dezan.

Galdetu dizut askok Arnaldo Otegi jotzen dutelako ezker abertzale barruan izan den aldaketa horren erantzule nagusitzat. Zer aitortu behar zaio Otegi?

Eta hala da. Arnaldo Otegi aitortu behar zaio izugarrizko garrantzia izan duela norabidea aldatzeko ahalegin horretan, besteak beste guk lortu ez genuena lortu duelako: ezker abertzaleko gehiengoak bere bidea jarraitzea. Behin baino gehiagotan transatlantikoaren buelta-hartzea deitu izan dio hori Arnaldok, eta noizbait erantzun ere egin nion nik esanez transatlantikoaren buelta hartzen ari zela, bai, baina portuan zuzen sartzeko beharko zuela txalupa bat ondoan. Nolanahi ere, eztabaidak eztabaida eta dialektikak dialektika, Arnaldo Otegi asmatu du hori sakontasun handiz egiten eta lortu du jendeak jarrai ziezaioren, guk lortu ez genuena.

Harremanik baduzu Otegiarekin?

Bai, bai, badut, bai berarekin eta baita bere senideekin ere, eta Arnaldori berari askotan adierazi diot nire elkartzasuna eta miresmena. **Aurreko batean telebistako saio batean galdetu zizuten ea ikusten zenuen EHBildukoren bat Jaurilaritzako lehendakari. ‘Bai, jakina’, erantzun zenuen zuk, eta, nola ez, Arnaldo Otegiaren izena irten zen elkarrizketan.**

Bai. Askatasunik ez duen herriak askatasuna ukatu dioten pertsona du beti lehendakari nagusi, eta hori gurean Arnaldo da. Erdi txan-

txetan askotan esaten dugu Artus Mas karzelatik pasatzen baldin bada Kataluniak independentzia eskuratuko duela. Bada, Euskal Herriak askatasuna eskuratzeko, zalan-zarik gabe, Arnaldo ezinbestekoa izango da. Arnaldo Otegi berak azken idatzi duen artikulua hori, sentimendu handiz idatzitako artikulua hori, zeinean mintzatzen den bakearen kontra jokatzek dakarren ondorioez, oso adierazgarria eta kontuan hartzekoa da. Hor garbi ikusten da Arnaldok momentu honetan herri honi eskaintzen dion aterabidea elkartasunezko eta bakezko aterabidea dela eta nik Mirenez esaten dudana hori amankomuna dutela: hau da, bakegile izateko asmoarekin irteneko dela, gorroto eta esparik gabe.

Hitzeman aurkeztu du Jonan Fernandez Jaurilaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak, presoak gizarteratzeko legezko prozesuak laguntzeko programa. Hitzeman programari jarraitu nahi badiote, "bakea eta bizikidetzaren behin betiko ezartzen eta hari eusten laguntzeko" konpromisoa agertzeko adierazpen bati atxiki beharko zaizkio presoak. Baduzu honen inguruan zerbaitek esateko? Bai. Gernikako Estatutuan eta Nafarroako Hobekuntza Legean aurreikusita daude espetxe politikako eskumenak, eta eskumen horiek berdinak dira bi kasuetan. Hain zuzen diote espetxe politikaren kudeaketa aginte autonomikoari dagokiola, baina hori transferitu gabe dute hemen. Beraz, espetxe politikari buruzko eztabaida hori ez da ondo planteatzen nire ustez, euskal gobernuak ez duela behar adinako ausardiaz jokatzeko eskumen hori berehala aldarrikatzen ez duen neurrian. Zer egin beharko luke Urkulluren gobernuak? Bada, eskumen horren aldarrikapena azken muturreraino eraman. Kataluniak badu eskumen hori, eta berak bakarrik du autonomia guztietan. Ez da luzimendurako eskumena; eskumen zaila da, azkenean presoaren gaitasun kudeaketak arazoak sortzen dituelako, baina arazoei heldu egin behar zaie. Beraz, nik uste dut eskaera hori oso ahul egin duela Urkulluren gobernuak Jonan Fernandez bidetik, eta hain zuzen ere, ministroaren erantzuna hortik etorri zaio. 'Ez duzu eskumenik', esan dio ministroak. Eta hori da kontua. Jaurilaritzak lehendabizi hasi beharko luke eskumena eskatzen, espetxe politikaren kudeatzeko eskumena jasota dagoelako Estatutuan.

Jaurilaritza eta ausardia kontuak aipatu dituzu.

zu. Gaur [astelehena], Hasier Arraiz EH Bilduko legebiltzarkidearekin batu da Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arraizek oraintsu esan du babesa agertu diola lehendakariari, beti ere "Espainiako Gobernuari aurre egiten badio". Zuk ere hor ikusten duzu, beraz, Jaurilaritzaren hutsunea?

Bai, eta aspalditik dator. Are, berezko hutsunea du hori Jaurilaritzak, eta espetxe politikarena adibide bat baino ez da. Ez dira ausartzen aurre egitera, eta aurre egin gabe, ez dago ezer. Jarri gaitzen Eskoziara begira. Zer gertatu da han? Bada, Eskoziak aurre egin diola Londresi, eta orain, orain arte ukatzen zizkion eskumen asko agindu dizkiola Londresek. Emango dizkioten? Ikusiko dugu hori, baina Londresek betetzen ez badu hitza Eskoziak esan diezaioke erreferendumeraren deitu behar dela berriz, azken batean hori guztia agindu zitelako irabazi zuelako ezetzak eta jakina delako gazte jendearen artean independentzia zaleak direla gehiengoak.

"Arnaldo Otegi herri honi eskaintzen dion aterabidea elkartasunezkoa eta bakezkoa da"

Erabakitze eskubidea eta independentzia aipatu dituzula Aztiakerrek berriki egin duen inkesta baten berri galdetu nahi nizun. Aztiakerrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz zazpi herrialdeetan egin duen inkestaren emaitzek diote euskal herritar ez ezik, espainiar edo frantziar ere sentitzen dela gurean gehiengoak. Zer balorazio egin duzu? [Biztanleen %28,6 euskal herritar bakarrik sentitzen dira].

Inkesta horren aurretik, CIS Espainiako Azterketa Soziologikoen Institutuak egindako inkesta batek zioen Nafarroako gehiengo handi bat nafar sentitzen zela, ondoren euskaldun eta azkenik, hirugarren maila batean, espainiar. Beraz, garbi dago euskal herritarren identitatea anitza dela oso. Beraz, demokraziaren aginduz esan behar dugun lehenengo gauza da aniztasun horretan bizi-

tzera behartuak gaudela eta aniztasun hori ongi kudeatzeko modu bakarra dagoela: erabakitze eskubidea erabiltzea. Erabakitze eskubidea da elkarbizitzarako bide eta tresnarik garrantzitsuenak. Aralarretik beti esan dugu Euskal Herria herria dela eta gu abertzale independentistak garela, baina beti onartu dugu, adibidez, Nafarroan oraindik ere gehiengo handi batek ez duela hautu hori egin eta bizi behar dugula bizi behar dugunekin.

Zuek esana da Aralarren nahia dela ezberdinen arteko akordioak lortzea. Nafarroan noizko UPN kenzeko gobernu alternatiboa?

Ba ez dakit. Gaur goizean bertan ikusi dugu alderdi sozialistarekin bat egin duela UPNk gauzak larri jartzen zaizkionean eta alderdi sozialistak berari ematen dizkiola eman ahal dakizkion laguntza guztiak. Gaur bertan jokatuta dute elkar hartuta. Beraz, aldaketa etorri badator, gizartea aldatzen ari delako, baina gizarateak dakarren aldaketa hori egingen da alderdi sozialistari itxaron gabe eta alderdi sozialistarekin gabe.

Euskaraz dihardugu eta komunikabidea gara. Arduratuta begiratzen dugu Nafarroara ikusita gure lankide direnak zein egoeratan dabilzan han. Zer duzu esateko?

Arlo horretan ahalegin handia egin behar du ezinbestean, larria delako egoera. Hemen gure haurrek ez dute marrazki bizidunak euskaraz ikusteko aukerarik, ezin dugulako ETB3 ikusi. Mapa eta ez dakit zer beste erabiltzen dituzte aitzakiatzat, baina oinarrian amorrutan egositako politikaren eragina da hori. Euskal Herriak herri bezala egituratzeko hutsune handiak ditu, baina bat, dudarik gabe, komunikabideei dagokien gaia da.

Hogeita bi urte egin dituzu Nafarroako parlamentuan. Esana duzu, baina, ez zarela hauteskundeetara aurkeztuko. Erabaki pertsonala izan dela nabarmendu duzu, baina beharbada zurearekin batera beste karguzte batzuk ere egon direlako ezker abertzalean, zenbait forotan hasi dira balorazioak ugaritzen. EHBilduren balizko estrategia aldaketa batekin ere lotu dute zenbaitzuk.

Erabaki guztiz pertsonala izan da nirea. EHBilduk bere bidea egingo du. Osatzen duten alderdiak baino askoz gehiago da EHBildu, eta, barne demokrazia handituta handiago egitera jo behar dugu. Hori da gure defentsa etorkizunerako, ezker abertzalearen aberastasun handiena militantzia delako.

Martitzenean jokatu du Concepto Egilek kopako bigarren kanporaketa

20:30ean izango da partida, Olaizaga kiroldegian



Zaragozako D-Link Lehen Mailako taldearen aurka jokatu du Concepto Egilek Errege Kopako bigarren kanporaketa. Partida bakarrera jokatu da kanporaketa hau ere, beraz, galtzailea txapelketatik kanpo geratu da. Zaragozako taldea Errege Kopako finalerdietara iritsi zen iaz, eta une honetan liga txapelketako seigarren postuan dago. Concepto Egilek, bestalde, Iruñeko San Juan taldea Errege Kopatik kanpo utzi berri du, eta liga txapelketan, laugarren postuan dago. Goi mailako partida izango da martitzenekoa. 20:30ean hasiko da.

CD Elgoibarko bazkide txartelak bihar banatuko dituzte

CD Elgoibarrek jakinarazi du bihar banatuko dituztela aurtengo denboraldiko bazkide txartelak. Kalegoen plaza jaso beharko dira, 11:30etik 13:30era.

Bihar hasiko da Eskola Kiroleko denboraldia

Bihar ekingo diote Eskola Kiroleko denboraldiari, eta lehenengo jardunaldian atletismo saioa izango dute neska-mutilek. Jardunaldi horretan Mintxeta atletismo taldeko kideek ere hartuko dute parte. 9:30ean hasiko da saioa, eta bi orduko iraupena izango du. Antolatzaileek eskatu dute 9:15erako Mintxetan egotea. Taldekako kirolak hilaren 18an hasiko dira. Aurtengo denboraldian 345 neska-mutilek eman dute ize-na Eskola Kirolean.



LEIHOAK
SORALUZE

R.P. Aluminioa - Egur-aluminioa - PVC

Fabrika:
Olasope kalea, 66
Olaso industrialdea
Tel./Faxa: 943 742 103

Erakusketa:
Santa Ana kalea, 8
Tel.: 943 743 634
20870 Elgoibar



EVE | **Ente Vasco de la Energía**

Plan Renove Leihoetan

2014ko azaroaren 30a arte

1000€-ra arteko diru-laguntzak


Emisio baxuko beirazko leihoak, energia aurrezteko

Inaxio Arregi eta Mendaroko giza-proba taldearen arteko desafioa izango da bihar Kalebarren plazan

12:30ean hasiko da ikuskizuna

Errosarioko Jai Batzordeak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako, eta horien artean zapatuan egingo duten herri kirol desafioa nabarmendu behar da. Mendaroko giza-proba taldearen aurka neurtuko ditu indarrak Inaxio Arregi azpeitiarrak; 500 kiloko harriari tiraka arituko dira lehenak, eta 80 kiloko burdin zatia sorbaldan hartuta ibiliko da Arregi.

Apustu bitxiak egindakoa da Inaxio Arregi azpeitiarra. Ezagunena, beharbada, 104 kiloko burdin zatia sorbaldan hartu eta Urko mendira (Eibar) igo zenekoa izango da. Sei ordu eta 45 minutuan igo zuen burnia, 2002ko apustu hartan. Orduan erabili zuen burdin zatiaren oso antzerako beste batekin, 80 kilokoa hau, arituko da orain beste desafio bitxi batean. Mendaroko giza-proba taldeko sei lagun izango ditu aurrez aurre, Errosario kaleko jaien barruan antolatu duten deman. Mendaroarren 500 kiloko harria mugitu beharko dute, eta Kalebarren plazako probalekuan 20 minutuko denboran plaza gehien egiten dituenak irabaziko du saioa. Bihar izango da ikuskizuna, 12:30ean hasita, Kalebarren plazan.



Aitzol eta Jurdan Ezenarro Arratiako raidean

Arratiako raida irabazi du Imanol Garaizabalek

Arratiako Raid proba jokatu zen joan zen zapatuan Otxandio inguruetan, eta Imanol Garaizabalek irabazi zuen, Aaron Garmendiarekin bikote eginez. Otxandion bertan egin zuten orientazio proba, eta gero mendi-bizikletan hango urtegirantz abiatu ziren partaideak. Segidan, 4,5 kilometro egin behar izan zituzten piraguan. Horren ostean, berriz bizikleta hartu, eta trekking saioarekin amaitu zuten. Sei atal izan zituen probak, eta lehenengo hiru ataletan Otxandio dioko bikote batekin lehia bizia izan zuten, baina laugarren sekziotik aurrera bakarrik egin zuten proba. Imanolek eta Aaronek lortu zituzten puntu gehien zazpi orduko proban, eta bederatzi puntuko aldea atera zioten bigarren bikoteari. Denboraldiko lasterketarik onena egin du tela adierazi du Imanolek. Urriaren 25ean Iruña inguruetan jokatuko dute Euskal Ligako azken proba. Saillapen nagusian lehen postuan daude, eta azken raidean parte hartzearekin nahikoa dute liga txapelketa irabazteko. Datorren urtera begira, Europako proba batean parte hartzeko asmoa azaldu du Imanolek, Vall d'Aran inguruetan. Jabi Guallarrek eta Aitor Zubiaurrek eta Jurdan eta Aitzol Ezenarro anaiek ere hartu zuten parte.

Jokin Muñoz mendaroarrak Bartzelonako Iron Man proba amaitu du

Jokin Muñoz mendaroarrak gogor entrenatu du Calellako (Bartzelona) Iron Man proba egiteko, eta bere helburua lortu eta hobetu egin du gainera. Proba amaitzeko asmoz hasi zuen lasterketa, eta azkenean uste zuena baino denbora hobe egin zuela adierazi du. 10 ordu eta 27 minutuan amaitu zuen proba. 3,8 kilometro egin behar izan zituen igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika. Maratoiko azken hamar kilometroak egin zitzaizkion gogorrenak, baina oso pozik dago lortutako emaitzarekin.



Euskadiko Hiru Txirlo txapelketa hasiko da bihar

Bihar hasiko da Euskadiko Hiru Txirlo txapelketa, Barinagako (Markina) bolatokian. 17:00etan hasiko da jaurtialdia, eta parte hartzeko 5 euro ordaindu beharko dira. Irabazleak 65 euroko saria jasoko du. Txapelketak lau jardunaldi izango ditu: hilaren 18an Elgoibarren jokatuko dute, San Rokeko bolatokian, urriaren 25ean Bolibarren, eta azaroaren 8an izango da azkena, Aiastian.

Aritz Ruiz de la Torrek bigarren egin du Zumaiako Zakila Biran

Elgoibarko eta Mendaroko 21 lagunek hartu zuten parte

Zakila Bira herri lasterketa jokatu zuten zapatuan Zumaian, eta Mendaron bizi den Aritz Ruiz de La Torre debarrak bigarren egin zuen. Eduardo De Miguel eibartarra izan zen guztietan azkarrena, baina ia lasterketa osoan lehia estua eduki zuen Aritz Ruiz de la Torre eta David Martin lasartearrekin. Irabazlearengandik 35 segundora sartu zen helmugan Aritz Ruiz de la Torre, 1:09:12ko denborarekin. 401 lasterkarik hartu zuten parte guztira hogei kilometroko proban, tartean zortzi mendaroarren eta hamahiru elgoibartarren.



Elgoibartarrak

- 12. Unai Narbaiza (1:13:15)
- 21. Jon Garate (1:14:43)
- 77. Julen Azpiazu (1:20:35)
- 129. Ibon Serrano (1:25:08)
- 182. Oscar Simon (1:29:26)
- 215. Miguel Angel Montes (1:32:03)
- 262. Mikel Kortabitarte (1:34:57)
- 270. Francisco Javier Huertos (1:35:46)
- 291. Joseba Zinkunegi (1:38:06)
- 292. Asier Arzamendi (1:38:06)
- 323. Pilar Arriola (1:41:45)
- 324. Iosu Zubiaurre (1:41:46)
- 327. Agurtzane Arriola (1:41:46)

Mendaroarrak

- 2. Aritz Ruiz de la Torre (1:09:12)
- 11. Gotzon Zulaika (1:13:10)
- 14. Alonso Gomez Viña (1:13:26)
- 27. Jon Larrañaga (1:16:28)
- 156. Miguel Urkiza (1:27:02)
- 210. Igor Ezenarro (1:31:27)
- 276. Gorka Gallastegui (1:36:06)
- 322. Imanol Esnaola (1:41:22)

EMAITZAK

FUTBOLA

- Tolosa 1 – Haundi 0 (Ohorezko erreg.)
- Elgoibar 2 – Tolosa 3 (Jub.)
- Elgoibar 1 – Lagun Onak 1 (Kad. A)
- Elgoibar 0 – Urki 2 (Kad. B)
- Ilintxa 3 – Elgoibar 3 (Inf. Txiki)

PILOTA

- Gipuzkoako Txapelketa
- Lagunak 5 – Behar Zana 22 (2. mailako nag.)
- Lagunak 16 – Hernani 22 (2. mailako jub.)
- Pala
- Lagunak 25 – Atxurbide 17 (2. mailako nag.)
- Batzokiko 20 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

- Concepto Egile Elg. 4 – Sala Quinto 1 (2B)

ESKUBALOIA

- Aiala Zarautz 25 – Lauko Elg. 23 (Sen. nes.)
- Trapagaran 28 – Alkorta Elg. 18 (Sen. mut.)
- Gabaz Elg. 34 – Leizaran 29 (Sen. mut.)
- Zuazo 27 – Astigarraga Elg. 20 (Jub. nes.)
- Beristain Elg. 27 – Saieko 24 (Jub. mut.)
- Zuazo 23 – Tecnifuelle Elg. 24 (Kad. nes.)
- Alaiki Araialde 10 – Pneumax Elg. 12 (Kad. nes.)
- Bankoa Elg. 27 – Saieko 25 (Kad. mut.)
- Deca Elg. 27 – Ormaiztegi 17 (Kad. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

- Zapatua, 11
- 17:00 Haundi – Antzuola (Ohorezko erreg.)
- 12:00 Elgoibar – Urki (Inf. Txiki)
- Domeka, 12
- 12:00 Elgoibar – Urki (Aleb.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

- Zapatua, 11
- 10:30 Tecnifuelle Elg. – Aiala (Kad. nes.)
- 11:30 Astigarraga Elg. – Aiala (Jub. nes.)
- 16:00 Pneumax Elg. – Aiala (Kad. nes.)
- 17:45 Lauko Elg. – San Adrian (Sen. nes.)
- 19:30 Alkorta Elg. – Eibar (Sen. mut.)

PILOTA

- Barixakua, 10
- Pala
- 20:30 Lagunak – Piñakurdirin (2. maila nag.)
- 21:30 Lagunak – Atxurbide (2. maila nag.)

San Pedrora bizikleta eta rolleski igoerak egingo dituzte domekan



Lagun Taldeak antolatuta, San Pedrora txirindulari igoera jokatu da domekan, Pilarika Egunean. Txirindulariak 12:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik, eta Idotorben izango dute helmuga.

Azken urteotan bezala, egun honetan bertan Rolleski igoera egingo dute Idotorberako maldetan. Igoera kronometratu egingo dute, eta parte hartzeko izena eman behar da. Aurretik, 9:30ean IMHTik Mariputzura egingo dute rolleski igoera, eta hor parte hartzeko ez da izena eman behar. Hala ere, autoz jaisteko asmoa dutenek jakinarazi egin behar dute antolatzaileei.

Haritz dantza taldearen ezpata dantza izango da domekan

11:30ean hasiko da dantza erakustaldia meza nagusian



Orain dela sei urte berreskuratu zuen Haritz dantza taldeak Errosario kaleko Ama Birjinaren ezpata dantza, eta aurten ere, dantzatuko dute domekan, Errosario kaleko jaien barruan. 11:30ean hasiko da dantza emanaldia San Bartolome parrokiari. Ezpata txikidun dantzariak meza nagusian hartuko dute parte, eta meza amaitu ostean, dantzari guztiek egingo dute dantza elizako atarian. Segidan, dantzarien prozesioa hasiko da. San Bartolome kalea zeharkatuz, Kultur Etxe aurrean egingo dute lehenengo geldialdia. Ondoren, Errosario kalean barneratuko dira eta Ama Birjinaren aurrean dantzatuko dute. Azkenik, Kalegoen plazarantz abiatuko dira, eta han egingo dute azken dantzaldia.

Martitzenean, urriaren 7an hain zuzen, Errosario Eguna izan zen. Kaleko bizilagunek lore eskaintza egin zioten Ama Birjinari eguerdian, eta iluntzean salbea abestu zioten. Eguaztenean txokolate jana egin zuten, eta atzo zezentxoak izan ziren umeentzako. Gaur arratsaldean txaranga eta Kiribil izango dira, eta bihar goizerako herri kirol jardunaldia ere antolatu dute.

‘Happy End’ antzezlanaren ikusteko aukera izango da gaur, Herriko Antzokian

Vaiven Produzioak taldeak *Happy End* antzezlanaren taularatuko du gaur, Herriko Antzokian. Krisiak sortutako zailtasunei aurre egin nahi diete protagonistak. Atsekabetik sortzen diren negozioak izango dituzte hizpide, eta orain arte tabu izan den arnasteari uzteaz ere jardungo dute. Umore beltzetik abiatutako istorioa kontatuko digute, eta hausnartzeko hainbat gai ere jarriko dituzte mahai gainean. Emanaldia 20:30an izango da, gaztelaniaz. Sarrerak 10 euro balio ditu (Gazte Txartelarekin, 7 euro).

Gotzon Garate beka, Elgoibarko euskarazko ondarea gizarteratzeko

Gotzon Garate Bekaren bigarren deialdia arautuko duten oinarriak onartu ditu Elgoibarko Udalak, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2014ko urriaren 6an. Oinarri horien arabera, beka gehienezko iraupena hamalau hilabetekoa izango da, eta zenbatekoa, berriz, 12.000 eurokoa. Ikerketa lana euskaraz egin beharko da, eta originala eta argitaratu gabea izan beharko da. Lana Udaren Euskara-Kultura Batzordearen ardurapean burutuko da.

Beka norbanakoek zein lantaldeek eskatu ahal izango dute. Lantaldeen kasuan, Udaren aurrean ordezkari izango den zuzendari arduraduna izendatu beharko da. Eskatzaileak erdi edo goi mailako unibertsitate titulua izan behar du, eta gainera, EGA edo agiri baliokideren bat. Bekarako proposamenak 2014ko azaroaren 25era arte aurkeztu ahal dira. Gai honi buruzko informazioa nahi dutenek Elgoibarko Udaren Euskara Sailera (943 744 366, euskara@elgoibar.net) jo dezakete.

‘Mollie Malone’ antzerkia, domekan

Elgoibarko Kultura Sailak *Mollie Malonen ipuin sinestezina* antzezlanaren antolatu du domekarako. Umeentzako antzezlanaren izango da, euskaraz. Mollie Malonen aitona bere baratza zoratu egin dela dio: tomateak behar baino lehen gorritu direla, izozte batek letxugak hondatu dizkiola, babarrunak ez direla loratzen... Mollie biloba liburutegi berezi batera bidali du informazio bila. Liburuan ate berezi bat aurkituko du eta mundu berri batean barneratuko da. 16:30ean hasiko da emanaldia. Umeek 3,5 euro ordaindu beharko dituzte, eta nagusiek, berriz, 5 euro.

Hasi da gure hizkuntzaren historia ezagutzeko 'Euskara Jendea' ikastaroa

42 lagunek eman dute izena

Asteazkenean hasi zen Elgoibarko Izarrak eta Udaleko Euskara Saiak antolatutako *Euskara Jendea* ikastaroa. Juan Carlos Etxegoien *Xamar* izango da ikastaroa emango duena, eta lehen saio honetan euskararen historiaurrean zentratu zen dibulgatzaile nafarra. Non eta noiz sortu zen euskara? Noiztik gaude euskaldunok lurralde honetan? Ez da euskararen jatorria ezagutzen, baina euskararen benetako enigma gaur arte zelan iraun duen da. Garai hartako hizkuntza gehienak desagertu baziren, euskarak zergatik iraun du gaur egun arte? Askok eta interesgarriak izan ziren lehen saioko galderak, baina are interesgarriagoak izan ziren Xamarrek egindako gogoetak.

Bigarren saioa datorren asteazkenean izango da, eta kasu honetan Erromako in-



perioaren garaia aztertuko dute. Erromako Inperioak Europako herri eta kultura guztiak suntsitu edo aldatu zituen, baina euskal komunitateak identitateari eutsi egin zion. *Euskara Jendea* ikastaroan esandakoak kroniketan jasoko ditugu, eta kronika horiek *elgoibarren.net* atarian eta *elgoibarkoizarra.com* web orrian eskegiko ditugu. Sei saio izango dira guztira, eta 42 lagunek hartuko dute parte.

Euskalerria irratitari laguntzeko DVDan parte hartu du Markel Bergarak

Nafarroako Euskalerria irratitari laguntzeko CD-DVDa kaleratu dute Ene Kantak taldeko kideek, haurrentzako 20 kanta eta bideoz osatuta. Euskal Herriko 23 pertsona ezagunek eta 500 umek hartu dute parte lan honetan. Fermin Muguruza, Ruper Ordorika edota *El Drogas* abeslarienez gain, pilotari, bertsolari eta futbolariak ere ageri dira kantuan, eta horien artean, Markel Bergara Realeko futbolari elgoibartarra ere bai. Proiektua auzo lanean eraiki dute; *Ene kantak* ekimeneko kideak musu truk aritu dira lanean, pertsona ezagunek modu berean abestu dute, eta 689 lagunek 18.467 euro jarri dituzte, egitasmoa finantzatzeko. CD- DVD-a eskuragarri dago www.enekantak.com webgunean.



Udazken Festa antolatu du Elgoibarko Izarrak biharko

Elgoibarko Izarrako Atxutxia-maika aisialdi taldeak Udazken Festa antolatu du biharko. Udazkenari ongi-etorria egingo diete, eta horretarako umeentzako jolasak eta tailerrak antolatu dituzte, besteak beste. Udazkeneko kolorez jantziko dute Kalegoen plaza 11:30etik aurrera.

EiTBk eta Tokikom-ek elkarlanerako akordioa sinatu dute



EiTBk eta Tokikom-ek elkarlanerako akordioa sinatu dute. Tokikom osatzen duten bazkideen artean da BARREN astekaria. Lehendik ere Euskadi Irratiarekin antzeko ituna

sinatua zuten, eta horri esker, besteak beste, astelehenero *Mezularia* saioaren barruan Tokikom tertulia entzun daiteke. BARREnek ere hartzen du parte saio horretan. Orain, berriz, EiTB osora zabaltzen da akordioa. Maite Iturbe EiTBko zuzendari nagusiaren aburuz, bi aldeei ekarpen aberatsa egingo die hitzarmenak. Akordioan agertzen denez, hasiera batean batzuen eta besteen agendak elkartrukatu dituzte bi erakundeek, eta aurrerantzean materiala elkarbanatzeko aukerez arituko dira. Elkarlan honek dagoeneko eman ditu bere lehen fruituak. Astelehenetik bertatik ETB1eko *Azpimarra* saioan Tokikom osatzen duten komunikabide desberdinetako kideek hartzen dute parte.

ETXEBIZITZAK

- Etxe polita salgai erdigunean. Bi logela, bero-gailua. Bizitzera sartzeko moduan.
☎ 688 691 327
- Etxea alokairuan: bi logela, egongela handia, terraza, ganbara. Altzari eta igogailuarekin.
☎ 646 581 666
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 636 310 711

LANA

ESKAERA

- Neska eskaintzen da adinekoak, umeak edo ezinduek zaintzeko. Orduka. Geriatria ikasketak ditut.
☎ 688 901 667 / 943 530 908
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo orduka. Esperientziaduna. Gida bai-menarekin. ☎ 631 343 232
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Interna ere bai.
☎ 628 740 765
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Agiriak legez ditut.
☎ 602 186 462
- Emakumea adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Gauzez ere bai.
☎ 631 417 995
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna moduan. ☎ 649 626 975
- Emakumea adinekoak adinekoak zaintzeko prest. Goizez. ☎ 628 529 252
- Emakumea adinekoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 608 523 426
- Emakumea adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 603 740 755

- Gizona lan bila: sukaldari, adinekoak zaintzen, tornuan, fresadoran... ☎ 633 892 829
- Geriatria laguntzailea, adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest.
☎ 646 931 162
- Gizona eskaintzen da eraikuntza, margotzaile edo garbitzaile lanetarako. ☎ 677 866 495
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egin, sukalde laguntzaile edo etxeko lanetarako.
☎ 678 292 120
- Emakumea lan bila. Esperientzia garbiketak egiten eta adinekoak zaintzen.
☎ 637 966 749
- Neska eskaintzen da adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko.
☎ 617 571 210
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest.
☎ 677 259 560
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko prest. ☎ 606 354 982
- Emakumea lan bila.
☎ 634 709 827
- Emakumea adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Ordukegi malgua. Asteburuetan ere.
☎ 638 338 816
- Gizona eskaintzen da garbiketak egin eta adinekoak zaintzeko.
☎ 602 057 896
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest.
☎ 690 064 225

ESKAITZA

- Elektrikari, iturgin edo antzeko ofizioetan esperientzia duen pertsona behar da. CV bidali argazkiarekin: ezenarro13@gmail.com
- Kirol enpresa batek monitorea behar ditu, Debabarreneko kiroldegietan spinning, pilates, K-Stretch, hipopresiboak... emateko.
elgoibar@bpxport.es

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garajea salgai Maalan, Eroski azpian. Itxia, 16m2. Prezio onean. 22.000 euro.
☎ 675 007 661
- Bi autorentzako lekua duen garajea salgai Maalan. Eraikin berria.
☎ 622 488 667

PARTIKULARRAK

- Cambridge tituludun irakasleak ingeles eskolak ematen ditu. Irakasle natiboa. Ume zein helduentzat. Cambridge azterketaren prestaketa.
☎ 943 740 225 (Francesca)
- LH, DBH eta Batxilergoko eskolak ematen ditut. Matematika, kontabilitatea...
☎ 666 042 710
- Magisteritza diplomatuak laguntza klaseak emango lituzke. Esperientzia handia hezkuntzan eta ulermen arazoetan.
☎ 696 295 098
- Neska euskaldunak partikularrak ematen ditu. Edozein ikasgai. EGA titulua daukat.
☎ 659 024 427
- Ingeniari mekanikoak DBHko klase partikularrak emango lituzke. EGA eta First titulua ditut.
☎ 676 722 556

OSPAKIZUNAK

- 1989koen kinto afaria, urriaren 18an Sigma jatatxean. DJa ere egongo da. Interesatuek 40 euro sartu, Kutxabankeko kontu honetan: 2095 5036 509114199307.
elgoibar1989@gmail.com



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Duela urte batzuk garaje-plaza bat erosi nuen salerosketa-hitzarmen pribatu baten bitartez. Hitzarmen honetan jaso genuen erdia dirutan ordainduko genuela eta gainerakoa lau urteko epean ordainduko genuela, hileka. Bukatu berri dut garajea ordaintzen eta orain hitzarmen hori eskritura publiko bihurtu nahiko nuke. Orain, garajea saldu nahi dut, baina ez dut lortzen saldu zidana topatzea, eta jakina, ez daukat garajea eskrituratuta. Saldu ahal izango nuke garajea eskriturarik gabe?

Ondasun higiezin hori saldu zizuna lokalizatu beharko zenuke eta eskritura publikoa egitera derrigortu, beti ere modu adeitsu batean. Kontrako kasuan, saltzailea salatu beharko duzu, eskritura publikoa eman diezazun, eta salaketa hori Jabetza-Erregistroan jaso dezaten eskatu beharko duzu epaitegian, zeure izenean eskrituratzen duzun hein berean. Hori guztia egitea oso garrantzitsua da, bestela beste pertsona batek bere izenean eskrituratu ahal izango duelako erregistroan, zure aurretik

AHOLKUA: Ondasun higiezin bat erosten denean garrantzitsua da eskritura publikoa egitea eta Jabetza-Erregistroan erregistratzea. Berez, ez da derrigorrezkoa, borondatezkoa baizik, baina komeni da egitea ondasun higiezinaren transmisioa eta eskuratzea legeak eskaintzen duen segurtasun osoz egiten dela bermatzeko.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Javier**, urriaren 4an 12 urte egin zenituelako. Famili osoaren partez.



• Zorionak, **Leire**, igandean 4 urte egin zenituelako. Familiakoen partez, eta bereziki lbairaren partez.



• Zorionak **Garazi Arriolari** asteazkenean 10 urte egin zituelako. Etxekoek, eta, bereziki asko maite duen ahizpa Irunek. Ondo pasa.



• Zorionak, **Bidatz**, atzo 9 urte bete zenituelako. Maite zaituzten guztien partez.



• Zorionak, **Manex**, urriaren 8an 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, etxekoek partez.



• Zorionak, **Luken!** Larunbatean zenbat urte? 2? Elgoibarko sorginen partez, muxu handi bat.



• Zortzi urte zoragari bete berri! Zorionak, **txapeldun**, eta segi ospatzen.



• Zorionak, **Malen!** Dagoeneko 3 urte! Neska handia zara! Muxu pila bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **txapeldun!** Lau muxu potolo-potolo, etxekoek eta lagunaren partez.



• 5 urte handi **gure gizonxoak!** Zorionak, Aimar, etxekoek partez.



• Ostirala iritsi da! Zure urtebetetzea da, **Kaleit**. 2 urte!. Goazen denok merendolar! Muxu asko etxekoek eta Urkoen partez.



• Zorionak, **Ander**, igandean 9 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoek partez.



• Zorionak, **bikote!** Iritsi da egun handia! Bihar zuekin ospatuko dugu, gogotsu gaude-eta. Zoriontsu izan zaitezte, bihotz-bihotzez. Zuen lagunak.



• Zorionak **etxeko printzesari**, gaur 8 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez, eta bereziki amona Ankoraren partez.

Zoriondu ezazu **BARREN**en!

<p style="text-align: center;">PREZIOAK</p> <p style="text-align: center;">Erretratu bakarreko agurra: 4'50€</p> <p style="text-align: center;">Argazki bikoitza: 7€</p> <p style="text-align: center;">Hirukoitza: 9€</p> <p style="text-align: center;">Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€</p>	<p style="text-align: center;">ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK</p> <p style="text-align: center;">Erretratu bakarreko agurra: 3'50€</p> <p style="text-align: center;">Argazki bikoitza: 6€</p> <p style="text-align: center;">Hirukoitza: 8€</p> <p style="text-align: center;">Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€</p>	<p style="text-align: center;">Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako)</p> <p style="text-align: center;">baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.</p>
---	--	--

Marian Belda ELISKONATURA SL

Naturorpatien kolegiatua: +04 28

- * Kiroprasiak
- * Kiroprasiak
- * Enkaxio teknikak
- * Etxez etxeko zerbitzua

Aldez aurretiko hitzordua eskatuko **688 692 318**

Opartik onare
estresaren kontrako masajea

Mendarozabal, 5, beheko eskuinean 20850 - Mendaza (Gizakoa)

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1
Tel: 943 741 189

10 barixakua

Antzerkia

20:30 'Happy end'

Vaiven produkzioak taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

11 zapatua

Festa

11:30 Udazken festa

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

'Bateragune auxia'

17:00 Manifestazioa

Arnaldo Askatu plataformak deituta, Kalegoen plazatik.

12 domeka

Txirindularitza

12:00 Idotorbera igoera

Lagun taldeak antolatuta, Kalegoen plazatik irtengo dira txirindulariak.

Antzerkia

16:30 'Mollie Malone'

Txalo produkzioak taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

16 eguena

Udal eta Foru hauteskundeak

19:00 Bilera

Elgoibarko EHBilduk deituta, Udal eta Foru Hauteskundeetarako bigarren bilera. Kultur Etxean.

ERROSARIO KALEKO JAIK

10 BARIXAKUA

18:00 Txaranga

19:00 Igel toka txapelketa

20:00 Luntxa

12 DOMEKA

11:30 Errosario kaleko Ama

Birjinari eskainitako ezpata dantza

11 ZAPATUA

11:30 Herri-kirolak



Urriaren 15ean, 19:00etan, guraso-bilera ludotekan! Bertako funtzionamendua ezagutzeko interesa duten herriko guraso guztientzat.



Igande honetan, urriaren 12an, gaztelekuia itxita egongo da Pilar Ama Birjinaren eguna delako.

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«Chef»

11, zapatua: 19:00 / 22:15

12, domeka: 19:00

13, astelehena: 21:30

«Joven y bonita»

Ongarri zinekluba

16, eguena: 21:30

Zuzendaria: Jon Favreau. AEB, 2014. Iraupena: 115 min. **Generoa:** Komedia. **Aktoreak:** Jon Favreau, Sofia Vergara, John Leguizamo, Scarlett Johansson, Dustin Hoffman. Nagusiarekin arazoak dituela eta, Carl Casper sukaldariak bere lana utziko du. Miamin dago, eta han hasi beharko du bizimodu berria. Emazte ohiarekin eta semearekin jabetxe ibiltaria sortuko du. Errepidean biziko dira. Carlek sukalderako ilusioa eta maitasuna berreskuratuko ditu.

Zuzendaria: François Ozon. Frantzia, 2013. Iraupena: 95 min. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Marine Vacth, Géraldine Pailhas, Frédéric Pierrot. Neska gazte baten bizimoduia islatzen du filmak, lau urtaroretan oinarrituta. 17 urteko neskatilak bere gorputza nola aldatzen den deskubrituko du, sexua eta maitasuna ezagutuko ditu, eta bere identitatea aurkitzen saiatuko da.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
10 Garitaonandia 11 Etxeberria 12 Etxeberria 13 Fernandez 14 Yudego 15 Zabaleta 16 Barrenetxea 17 Ibañez	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko ambulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

3.

FASEA

www.garraioahobetzen.net



herriarrek
martxan en marcha



 *Gipuzkoa*
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



 *Gipuzkoa*
BERRIA

Informazio gehiago:
www.garraioahobetzen.net

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean. Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriak 16 Eibarren,
udaletxean 18:30ean**

UBITARTE BIZIGUNEA



Salgai 215.800€-tik aurrera

Hona hemen Ubitarte Bizigunea, goi-mailako etxebizitza berrien promozioa, Elgoibarko erdigunean, ingurune natural paregabean eta merkatuko preziorik onenean. Hau guztia, ANTZIBAR ERAIKUNTZAren bermearekin eta KUTXABANKek finantzatuta.

Lehenengo fasean 10 etxebizitza eraikiko dira, 2 eta 3 logelatakoak, solairu bakarrekoak edo duplexak, guztiak eguzkitsuak eta kalera begira, erabat hornitutako sukaldeekin eta garaiekin aukeran. Zure etxe berria neurria egiteko aukera ematen dizugu.

Informazio gehiago eta salmenta

Arbeloa Inmobiliaria
San Frantzisko Kalea, 34, Elgoibar
arbeloainmobiliaria@euskalnet.net
699 95 30 21 / 943 74 84 27

